

APAIZ KARTZELA ZAMORAN

Frankismoren garaietan Eliza katolikoak errejimenarekin izan zituen harremanak, nolabait esatearren, oso lekuz kanpokoak izan ziren. Laiko kontzientziatuek argi ikusten zuten erabat desbideratuak zirela baina horien konbentzimendua, beste arlo askotan bezalaxe, ez zen kontutan hartzen.

Apaizei dagokienez, behe mailako apaizen gehiengoak behinik behin, nik uste, zalantzarik barik arbuiazen zuela sistema, baina maila horietako gaietan eskumenik ez zutenez, nola edo hala moldatu beharra baino beste biderik ez zeukaten.

Zailtasun guztien artean, euskal apaizen gehiengoa herritarrengandik hurbil izanik, zerbitzu egokia eskaintzen saiatu zen. Garesti ordaindu zuten beraien zintzotasuna: **17** fusilatuak, **225** espetxeratuak (ezaguna da Julian Besteiro Errepublikako presidente ohiarekin batera **Carmonako espetxean** preso egon ziren euskal apaizen argazkia), **523k erbesteratzea** erabaki zutenak, **469 erbestera joatera behartuak** eta **75 kargugabetuak** ala **karguz aldatuak**. (Anxo Ferreiro Currás. Consejos de guerra contra el clero vasco (1936-1944). La Iglesia vasca vencida: asesinada, encarcelada, desterrada y exiliada. Intxorta Kultur Elkartea, 2013.

Gotzainei dagokienez, beraien izendapenak nola egiten ziren kontutan hartuta, ez zegoen erabaki garrantzitsurik itxaroterik. Mateo Mujika Gasteizko gotzaina eta Vidal i Barraquerr Tarragonako artzapezpikua Frankismoa baino lehen gotzain izendatuak izan ziren.

Kontuak kontu, frankismoaren luzapenaz etsita, zenbait apaiz –Bizkaian bereziki, esango nuke– zirrikitu batzu bederen irekitzen saiatu ziren. Ahalegin horien artean aipatzekoak Vatikanora eta gotzainei eta bidalitako salaketa-idazkiak, metetako hitzaldietan egindako salaketak, eta abar.

Horietako bat izan zen Ibarruriko Ajuria auzoko meza batetan Alberto Gabikagojeaskoak egindakoa. Salaketa jarri zioten eta zigorrez Palentziako Dueñasko Trapenseen monastegira eraman zuten atxilotuta. Handik Zamorako apaiz-kartzelara; horela bera izan zen hartzela hari estreinaldia eman ziona.

Esanguratsuagoak izan ziren ondoren egin ziren ekintzak: Bilboko Gotzaitegiko bi okupazio 1968ko udan, eta Derioko Seminarioaren okupazioa, 04-04-1000 (azaroaren 4an, arratsaldeko 4etan, mila pesetarekin) deiadiar iragarria. Hogetaka egunetz iraun zuen okupazioak, D. Pablo Gulpide gotzainaren heriotzara arte.

Bakoitzak har zitzakeen konpromisoez gain, ezin aipatu gabe utzi Bizkaiko bost apaizek (Xabier Amuriza, Alberto Gabikagojeaskoa, Julen Kalzada, Josu Nabera eta Nikola Telleriak egin zuten ekintza: Gotzaitegiko lokal batetan egindako gose-greba, hain zuzen.

Hiru egun barru atxilotu zituzten eta epaitu, epaiketa sumarisimoan epaitu ere, eta Zamorako kartzelan sartu.

Ordurako han ziren Lukas Dorronsoro eta Mikel Zuazabeitia, Gipuzkoako apaiz sekularrak eta Francisco Botey fraide katalana.

Lehenago egonak ziren, hilabetez, Txomin Artetxe, Iñaki Aurtenetxe eta Pedro Berrioategortua.

Gose greba egin zutenen ondoren sartu zituzten Joseba Atxa, Pedro Ojanguren, Jose Mari Ortuzar eta Martin Orbe. Lehenengo hirurek komentu batetan bete zuten kondena Jose Maria Cirardak Francorekin adostutako akordioari esker.

Aldi beretsuan sartu zituzten Juan Mari Zulaika eta Felipe Izagirre, fraide frantziskotarrak. Azkenengo hau handik gutxira sekularitu egin zen eta Carabancheleko kartzelan bete zuen kondena.

Aldi beretsuan espetxeratu zituzten Juan Jose Onaindia, fraide beneditar gipuzkoarra hilabeterako, Pedro “Periko” Solabarria (bizpahiru aldiz), Patxi Bilbao eta Jose Mari Madariaga, apaiz sekular bizkaitarrak eta Paskual Intxausti, bizkaitar fraide pasiotarra, zenbait hilabeterako eta Karmelo Zamalloa, apaiz sekular bizkaitarra (hilabeterako). Eta halaber Nicanor Acosta eta Vicente Couce, apaiz sekular galiziarrek; hauek ere zenbait hilabeterako.

Mezako hitzaldi batengatik jarritako isuna betetzeko sartu zituzten espetxean, Zamorakoan, noski, Ernesto Araco, Juan Antonio Gurrutxaga, Jose Antonio Kalzada, Anastasio Olabarria, Martin Ormaetxe, Francisco Regidor, Francisco Jabier Sagastagoitia, Jose Antonio Zabala eta Cipriano Zamalloa. Hilabetekoa zen zigorra, baina Mons. Cirarda gotzainaren gestioei esker, hamabot egun beteta atera zituzten kartzelatik. Aldi beretsuan espetxeratu zuten Luis Mari Bereziartua apaiz sekular bizkaitarra, multikopista bat (zorrotz begiratuak ziren garai haretan) lekuz aldatzeagatik; eta Imanol Oruemazaga eta Jesús Sánchez Sierra.

Garai haretan espetxeratu zituzten, halaber, Jon Etxabe apaiz gipuzkoarra, Kepa Arrate, Patxi Auzmendi eta Imanol Gisasola jesuitak, Eduardo Fornés, Jose Maria Garrido eta Andreu Vila apaiz katalanak; eta geroago Luis Maria Xirinach apaiz katalan ezaguna.

Ezin aipatu gabe utzi Carlos Garcia Huelga ikatz meategiko apaiz langile asturiarra, Mariano Gamo apaiz madrildarra, Pablo Muñoz kaputxino gipuzkoarra eta Paco García Salbe jesuita.

Konpromiso polikoengatik ez baizik eta delitu arruntengatik epaituak izan ziren Murtziako Julian García, Enrique Outeiral galiziarra, Hipolito Perez extremadurarra eta Jose Prat Balaguer mallorkar apaizak ere espetxeratu egin zituzten Zamorako apaiz kartzelan.

Esan behar da Zamorako apaiz kartzela bezala ezagutu izan dena zer nolakoa zen. “Vagos y maleantes” bezala etiketaturako presoak espetxeratzeko jarritako “Penal” handiaren hegala bateko pabiloi bat baino ez zen, Zamorako probintzia-kartzela izateko pentsatua. Beraz, espetxealdi laburretarako prestatua.

Horrela, bada, ez zuen espetxealdi luzeak betetzeko baldintzarik. Ez eukan preso bakoitzarentzako gelarik, kartzelako argotean “txabolo” bezala ezagutu ohi dena. Eguna igarotzeko sala bat, negurako berokuntza elektrikoaz ornitua eta otorduetarako beste sala bat. Komunak ez zutela aterik esanda, dana dago esanda.

Patio ziztrin bat, ariketa fisikoren bat egiteko baldintza minimorik ez zuena; *besobaloia* izena jarri genion kirola asmatu behar izan genuen: eskubaloiarako pilota patioiko hormaren kontra jaurtiz, eskupilota jokoaren antzerako jokoa egitea. ahalbidetzen zuena. Probintzia-kartzela zela kontutan hartuta ulertzen dira gabezia hauek guztiak.

Lotegia goiko solairuko sala bat zen. Udan labea eta neguan hozkailua. Zamoran izan ginen taldea kanpoan adiskide eta lagun izandakoak ginelarik, oso ondo konpondu ohi ginen elkarrekin baina gauez norberaren intimitaterako gune bat ez izateak, luzarora, izan zuen guregan eragin psikologikorik, gehiago ala gutxiago bakoitzaren izakeraren arabera.

Janariak nolakoak ziren, Xabier Amurizak Zamorako kartzelari buruz egindako bertsoetan oso grafikoki jasota dago:

Goizean goiz obetik
 jaiki egunero
 ur salda zikin batez
 gosaria gero.
 Eguerdian lenteja
 ta holako genero
 hemengo potajeak
 ikusi ezkerro
 * bizkarra gizentzerik
 ez dogu espero (bis)

Egindako ikasketak, bai bakarka eta bai taldeka aipatzeak luze joko luke. Hauexek aipagarrienak.

Resurrección Maria Azkueren hiztegian atzizkiren bat zuten hitz guztien hustuketa egin genuen denon artean, hitzok sailka jarriaz. Gero Xabier Amurizak sail bakoitza azpisailetan jarri zuen hitz bakoitzaren esanahia zehatz adierazteko. Izan ere, kasurako, lukurreria eta sinplekeria hitzetako atzizkiek formaz berdina izanik, ez dute funtsezko kontzeptu berdina adierazten batean eta bestean. Lan hau baliatuz egin zuen gero Xabierrek berak **Hiztegi errimatua** liburua.

Atzizkiak aztertzean ezinbestean azaltzen dira aurrizkiak. Euskaraz gutxi direla kontutan izanik, ez du arazorik izan behar **maileguak** hartzea zein erdal hizkuntzetatik zein latin eta grekotik, Xabierren ustez.

Guillermo Tell tiene los ojos tristes liburuaren euskal itzulpe-na ere egin genuen; bakoitzak kapitulu bana. Zuzenketak Xabierrek, gaizki zeudenak zuzen- duz eta beste pasarte batzuk txukunduz.

Hil ala bizi liburua ere kartzelan idatzi zuen Xabierrek eta *Aldous Huxleyren Bai mundu berria* euskarara itzuli ere bai.

Kartzelan egin zituen lanen zerrenda amaitzeko **Menditik mundura** liburua aipatu bebar, kanpoan zegoela idatzia baina kartzelan idatzitakoak baliatuta.

Kartzelan egindako lanez ari garenez, ez ditugu aipatuko geroztik idatzi dituenak; badira zenbait.

Zamoran geundenok argi geneukan herritarren zerbitzari izateak eraman gintuela kartzelara eta kartzelan ere Euskal Herriaren aldeko lanei ekin behar geniola. Alberto Gabikagojeaskak jo ta ke ekin zion **ingeles** ikasteari, Julen Kalzadak **magisteritza** ikasketak egin zituen eta titulua eskuratzeko **Herriak eta gizonak** liburua idatzi, Patxi Bilbaok **kontabilitate** ikasketak, Josu Naberan, Felipe Izagirre eta nik neuk **Filosia y Letras karrerako** lehen kurtsoa aprobatu genuen Valladolideko unibertsitatean; denborarik ere ez genuen izango, baina ez ziguten erraztasunik eman bigarren kurtzorako matrikula egiteko.

Zamorako Apaiz kartzelaren azkena.

Jesus Sanchez Sierra apaiz sekular bizkaitarra 1972ko urtarilaren 20an espetxeratu zuten Zamoran, baina **Erriberriko** frantziskotarren komentura aldatu zuten urte bereko maiatzaren 24an. Pedro Berrioategortua 1972ko martxoaren 28tik uztailaren 31ra egon zen Zamoran eta Paco García Salve 1973ko abuztuaren 5ean espetxeratu zuten Zamoran.

Zamoran preso egon ziren beste apaizei dagokienez, Nikola Telleria, oso gaixo, Carabancheleko presondegi-ospitalera eraman zuten 1974ko udan eta tarte txikira askatu zuten. Handik gitxira zendu zen. Xabier Amuriza, Alberto Gabikagojeaskoa eta Josu Naberan 1975eko abuztuaren 25ean atera ziren, zigorra beteta. García Salve, hau ere zigorra beteta, 1975ko azaroaren 29an.

Azkenik, Julen Kalzada eta Jon Etxabe, 1976ko martxoaren 24ean atera ziren komentu banatara zigorra osorik betetzeko.

Martin Orbe